

1



### EUROPAKO BATZORDEA

- Estatu kide bakoitzeko komisario bat
- Herrialde bateko gobernuarekin konpara daiteke
- Batasuna ordezkatzen du



2



### EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA

- Estatu kide bakoitzeko ministro bat
- Organo erabakitzailea
- Estatu kideak ordezkatzen ditu

3




### EUROPAKO PARLAMENTUA

- Gehienez ere 751 diputatu
- Organo erabakitzailea
- Batasuneko herritarrak ordezkatzen ditu



4



## EUROPAKO PARLAMENTUKO DIPUTATU BATEN AZALEAN

### PROZESUA

Hemendik aurrera, Europako Parlamentuko diputatu baten azalean sartuko zarete. Batasuneko herritarrek Europako Parlamenturako hautatu zaituztete zuzenean. Zuengan fidatzen dira lege-proposamenak aldatu, onetsi edo baztertzeko.

Taulan, alde zuria gorantz begira duten kartak aurkituko dituzue. Kartak zenbakituta daude. Hasi 1. kartarekin: taldeko kide batek biratu egingo du eta ozenki irakurriko du atzealdean idatzita dagoena. Ondoren, taldeak zereginak beteko ditu.

1. karta erabili ostean, jarraitu 2., 3. eta 4. kartekin, hurrenkeraren arabera. Errespetatu kartetan adierazitako denbora. Erabili ariketa-orri hau oharrak hartzeko.

### EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK ESKATUTAKO ALDAKETAK

Jarraian, idatzi laburki eskatutako aldaketak (zuzenketak) (2. karta).

---

---

### EUROPAKO PARLAMENTUAREN ALDAKETAK

Jarraian, idatzi Europako Batzordearen lege-proposamenean zeuek egin dituzuen aldaketak (zuzenketak). Hori da zeuen lege berria. Gomendatzen da bai Europar Batasuneko Kontseiluak (2. kartan) bai alderdi interesdunek emandako informazioa (3. karta) aintzat hartzea.

---

---

---

---

---

Zerrendatu Europako Parlamentuko diputatu gisa idatzi berri duzuen legeak irtenbiderik onena eskaintzen duela pentsarazten dizueten argudioak edo arrazoiak (4. karta).

1.

---

---

2.

---

---

3.

---

---

# 1. EUROPAKO BATZORDEAREN LEGE-PROPOSAMENA "TABAKOA BATASUNEAN"



Gazteak erretzen hastea saihesteko, Europako Batzordeak zera proposatzen du:

1. artikulua: ... Zigarreta-paketeetako osasun-ohartarazpenak derrigorrezkoak izatea, Batasuneko aurreko araudietan erabaki zen moduan.
2. artikulua: ... Paketeen diseinua fabrikatzaileen artean aldatu ezin izatea. Pakete guztiek estandarizatuak izan behar dute eta izen, marka eta fabrikatzaileko letra-tipo bakarra erabil daiteke.
3. artikulua: ... Batasun osoan 18 urte baino gutxiagoko pertsonei tabako-produktuak saltzea debekatzea.

EUROPE@SCHOOL

*Erantzukizunetik salbuestea: ariketa honen formak eta edukiak ez dute errealitatearen irudi osorik eta zuzenik ematen eta ez dituzte Europako Parlamentuaren, Europako Batzordearen, Europar Batasuneko Kontseiluaren edo presio-taldearen benetako ikuspuntuak ordezkatzeko. Simulazio-ariketa honen helburua soil-soilik hezigarria da, hartutako erabaki batzuen benetako oinarri bakarra.*

# 2. EUROPAKO BATZORDEAREN LEGE-PROPOSAMENA "BATASUNEN ARMA?"



Batasuna munduan boteretsuagoa izan dadin, Europako Batzordeak zera proposatzen du:

1. artikulua: ... Armada europar bat sortzea.
2. artikulua: ... Armada hori giza katastrofeak, adibidez, lehorteak eta uholdeak, gertatzen direnean hedatzea, bai Batasunaren barruan bai Batasunetik kanpo. Batasunetik kanpoko gatazketan ere esku hartu ahalko du, esate baterako, Sirian.

EUROPE@SCHOOL

*Erantzukizunetik salbuestea: ariketa honen formak eta edukiak ez dute errealitatearen irudi osorik eta zuzenik ematen eta ez dituzte Europako Parlamentuaren, Europako Batzordearen, Europar Batasuneko Kontseiluaren edo presio-taldearen benetako ikuspuntuak ordezkatzeko. Simulazio-ariketa honen helburua soil-soilik hezigarria da, hartutako erabaki batzuen benetako oinarri bakarra.*

### 3. EUROPAKO BATZORDEAREN LEGE-PROPOSAMENA "BATASUNA ETA BEROTZE GLOBALA"



Munduko tenperaturek 2° Celsiuseko muga kritikoa gainditzea saihesteko, Europako Batzordeak zera proposatzen du:

1. artikulua. ... Gutxienez Batasuneko amaierako energia-kontsumoaren % 50 energia-iturri berriztagarrietan, adibidez, eguzki- eta haize-energian, oinarrituta egotea 2030. urterako. 2050erako, % 100eraino igo behar da.
2. artikulua. ... Batasunak klimari buruzko nazioarteko konferentzietan zeregin gailena betetzea eta munduko beste herrialde batzuk neurri zorrotzak betetzeko konbentzitzea.

EUROPE@SCHOOL

*Erantzukizunetik salbuestea: ariketa honen formak eta edukiak ez dute errealitatearen irudi osorik eta zuzenik ematen eta ez dituzte Europako Parlamentuaren, Europako Batzordearen, Europar Batasuneko Kontseiluaren edo presio-taldearen benetako ikuspuntuak ordezkatzen. Simulazio-ariketa honen helburua soil-soilik hezigarria da, hartutako erabaki batzuen benetako oinarri bakarra.*

### 4. EUROPAKO BATZORDEAREN LEGE-PROPOSAMENA "EUROPAKO DEMOKRAZIA"



Batasuneko herritarrak gehiago inplikatzeko eta Batasunari buruzko pertzepzio zuzena daukatela ziurtatzeko, Europako Batzordeak zera proposatzen du:

1. artikulua. ... Europako Parlamenturako hauteskundeetarako, estatu kide guztiek nahitaezko botoa ezartzea. Horrela, herritar guztiak behartuta egongo dira Europako Parlamentuko ordezkari izateko hautatzen dituzten pertsoenez gogoeta egitera.
2. artikulua. ... «Herritar europarren biltzar» batek, ausaz hautatzen diren eta bakoitzean aldatzen diren herritarren kopuru batez osatuak, ekarpena egingo du legeria egin berri orotarako. Europako Batzordeak, Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak beren erabaketan gogoan izan behar dute Herritar Europarren Biltzarraren informazioa.

EUROPE@SCHOOL

*Erantzukizunetik salbuestea: ariketa honen formak eta edukiak ez dute errealitatearen irudi osorik eta zuzenik ematen eta ez dituzte Europako Parlamentuaren, Europako Batzordearen, Europar Batasuneko Kontseiluaren edo presio-taldearen benetako ikuspuntuak ordezkatzen. Simulazio-ariketa honen helburua soil-soilik hezigarria da, hartutako erabaki batzuen benetako oinarri bakarra.*

## 5. EUROPAKO BATZORDEAREN LEGE-PROPOSAMENA “ERREFUXIATUAK EUROPAN”



Batasunera orain heltzen ari diren eta etorkizunean helduko diren migratzaile eta asilo-eskatzaileen egoerari aurre egiteko eta kostuen bidezko banaketa bermatzeko, Europako Batzordeak zera proposatzen du:

1. artikulua: ... Estatu kide guztiek asilo-eskatzaileei\* aterpea eskaintzea Europako gutxieneko betekizunen arabera: asilo-eskatzaile guztiek elikagaiak, ostatua, hezkuntza, osasuna eta lanerako sarbidea izateko eskubidea daukate haien eskaera izapidetu bitartean.
2. artikulua: ... Batasun guztian asilo-eskatzaileak behin betiko birkokatzeko plana ezartzea. Modu horretan, herrialde bakoitzak ahalegin baliokidea egingo du.
3. artikulua: ... Herrialde bakoitzean banatutako asilo-eskatzaileen kopurua zehazteko, zenbait irizpide hartuko dira kontuan:
  - Herrialde bakoitzeko nazio-produktu gordina (NPGa)
  - Biztanleria
  - Langabezia-tasak
  - Gerrak suntsitutako eremuetako errefuxiatuak hartzeko eta birkokatzeko jada egindako ahaleginak
4. artikulua: ... Mediterraneo itsasoan laguntza behar duten migratzaileak\* erreskatatzeko eskala handiko misio europarra sortzea, gerta daitezkeen heriotzak saihesteko. Batasuneko estatu kide guztiak behartuta egongo dira misio horretarako ekarpena egitera, beren NPGaren arabera.

\* FUNTSEZKO TERMINOAK:

**Migratzailea:** Bere etorkiko herrialdea arrazoi batengatik uzten duen pertsona oro. Termino orokorra da.

**Errefuxiatua:** Errefuxiatua migratzaile-mota jakin bat da, jazarpen, gerra edo indarkeriagatik bere herrialdetik alde egitera behartuta egon dena. Errefuxiatuek jazarpenaren beldur izateko arrazoiak dituzte, arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, iritzi politikoagatik edo talde sozial jakin bateko kidea izateagatik.

**Asilo-eskatzailea:** Errefuxiatuek beste herrialde batean aterpea bilatzen dutenean, asiloa eskatzen dute, hots, errefuxiatu gisa aitortuak izateko eta babes juridikoa eta laguntza materiala jasotzeko eskubidea. Haien eskaera ebazteke dagoen bitartean, «asilo-eskatzaile» deitzen zaie.

EUROPE@SCHOOL

*rantzukizunetik salbuestea: ariketa honen formak eta edukiak ez dute errealitatearen irudi osorik eta zuzenik ematen eta ez dituzte Europako Parlamentuaren, Europako Batzordearen, Europar Batasuneko Kontseiluaren edo presio-taldearen benetako ikuspuntuak ordezkatzeko. Simulazio-ariketa honen helburua soil-soilik hezigarria da, hartutako erabaki batzuen benetako oinarri bakarra.*

## EUROPAKO BATZORDEA

1. Irakurri Europako Batzordearen lege-proposamena (minutu 1).
2. Iruzkindu proposamena laburki taldearen barruan: zertan datza? Eskatu informazio gehigarria irakasleari, behar izanez gero (minutu 1).
3. Taldeko kide bakoitzak tarte bat hartuko du proposamenarekin ados dagoen pentsatzeko. Gero, denek txandak egingo dituzte taldeko beste kideei beren ikuspuntua azaltzeko.

## DATUAK ETA ZENBAKIAK

- EBko biztanleria osoaren % 26k eta EBko 15 eta 24 urte bitarteko egoiliarren % 29k erretzen dute.
- Erretzaileen % 80 18 urte bete baino lehen hasi ziren erretzen.
- Hiru erretzailetatik bi tabakoaren ondorioz hiltzen dira.
- Tabakoa urtean ia 700.000 heriotzaren erantzulea da EBn.
- Miliioika erretzailek tabakoarekin erlazioz gaituratuak gaixotasunak dauzkate, hala nola minbizia.
- Batasunak kalkulatu du erretzeko azturak gutxi gorabehera 25.000 milioi euroko gastua ekartzen diola Europako osasun-sistemari urtean.

## GAZTEEK ERRETZEA SAIHESTEKO FUNDAZIOA

Tabakoaren industriak «ordezko erretzailetzat» jotzen ditu gazteak: tabakoaren ondorioz hiltzen diren pertsona guztiak konpentsatu behar dituzte. Horregatik, Europako Parlamentua hertsatzen dugu tabakoa erosteko adin-muga 21 urteraino igo dezan, 18 urte izan beharrean.

## 1. GAIA: TABAKO BATASUNEAN

## EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA

Ministroen Kontseilua ez dago guztiz ados Europako Batzordearen proposamenarekin. Aldaketa hauek ikusi nahiko genituzke:

2. artikulua: Zigarreta-marken logotipoa paketeetan agertu ahalko da.
3. artikulua: Estatu kideek soilik zehaztu ahalko dute tabako-produktuak erosteko adin-muga.

Idatzi aldaketa (zuzenketa) horiek ariketa-orrian (2 minutu).

## EUROPAKO PARLAMENTUA

Orain zeuen txanda da. Europako Parlamentuko diputatu gisa, lege-proposamena alda dezakezue, Batasuneko herritarrentzat komenigarriena iruditzen zaizuenaren arabera. BAINA: Europar Batasuneko Kontseiluaren iritziak (2. karta) eta Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena kontuan hartu behar dituzue. Erabili orobat alderdi interesdunen (presio-taldeen) informazioa.

Egin urrats hauek:

1. Biratu parte-hartzaileen kartak banan-banan eta irakurri ozenki (taldeko kide bakoitzak karta bat irakurriko du ozenki, txandaka). Ertzean sinbolo bat duten kartak dira. Jarraitu karta guztiak irakurri arte (2 minutu).
2. Jarri kartak mahaian, testua gorantz begira, talde guztiak informazioa ikusi ahal izateko.
3. Ezbaitadatu jatorrizko lege-proposamena taldean, artikuluz artikulua. Hasi 1. artikulutik: nor dago ados eta nor ez? Erabili alderdi interesdunen informazioa zeuen argudioetarako. Egin gauza bera artikulua guztiekin (6 minutu).
4. Idatzi lege egokitu bat, taldeko kide guztiak onartzen dutena. Artikuluen edukia aldatu, artikulua kendu eta artikulua berriki gehitu ditzakezue. Idatzi zeuen lege berri edo egokitua ariketa-orrian (6 minutu).

## MINBIZIAREN AURKAKO FUNDAZIOA

Pozik gaude proposamen berri honekin. Pertsonak erretzen hastea saihestu nahi dugu eta, gure ustez, pakete neutralek erakargarritasuna kenduko diote erretzeari.

Europako Parlamentua animatzen dugu lege-proposamen hori ahalik eta irmoena egitera.

## TABAKOAREN INDUSTRIA

Guri, tabakoaren industriari, ez zaigu gustatzen Europako Batzordearen proposamen berria. Europako Parlamentuari baztertzeko eskatzen diogu. Ahalegin handiak egin ditugu dagoeneko: tabako-iragarkiak debekatu dira eta paketeetan ohartarazpen handiak agertzen dira. Ez ahaztu tabakoaren industriari esker gobernuak 100.000 milioi euro baino gehiago biltzen dituztela urtean zerga-sarreretan. Era berean, pertsona askori enplegua ematen diegu. Lege horrek Batasunean 175.000 lanpostu galtzea ekar lezake.

Zeuen lege egokitua sortu duzue. Orain Europako Parlamentu osoaren laguntza lortu behar duzue. Prestatu zeuen lege berriaren aurkezpen laburra beste diputatuentzat (gelakideentzat). Erabili ariketa-orria eta jardun honela (3 minutu):

1. Hartu Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena eta irakurri ozenki.
2. Esan gelakideei zein aldaketa eskatu zituen Kontseiluak.
3. Irakurri ozenki zeuen lege berria.
4. Eman Batasuneko herritarrentzako neurri ona dela pentsarazten dizuen bizpahiru arrazoi edo argudio. Prestatu aurretiaz eta idatzi ariketa-orrian.

## EUROPAKO BATZORDEA

1. Irakurri Europako Batzordearen lege-proposamena (minutu 1).
2. Iruzkindu proposamena laburki taldearen barruan: zertan datza? Eskatu informazio gehigarria irakasleari, behar izanez gero (minutu 1).
3. Taldeko kide bakoitzak tarte bat hartuko du proposamenarekin ados dagoen pentsatzeko. Gero, denek txandak egingo dituzte taldeko beste kideei beren ikuspuntua azaltzeko.

## DATUAK ETA ZENBAKIAK

- Ameriketako Estatu Batuek munduko gastu militar altuenak daukate (649.000 milioi dolar estatubatuar), eta ondoren Txina (250.000 milioi dolar estatubatuar) eta Saudi Arabia (67.600 milioi dolar estatubatuar) datoz. (Statista, 2018)
- Espero da munduko armategi militarren tamaina hemendik 2030era arte bikoiztea, 2016koekin erkatuta.

## HERRITARREN PROTESTA

Ez dugu nahi Batasuna nazioarteko gatazketan nahastea, hemen Europan dugun segurtasunerako arriskua ekarriko lukeelako. Europako hiri handietan eraso terroristak egoteko aukerak areagotuko lirateke.

EBko armada sortzen bada, laguntza humanitarioko eragiketarako soilik hedatu beharko litzateke.

## 2. GAIA: BATASUNENKO ARMADA?

## EUROPAR BATASUNENKO IDEIA-LABORATEGI INDEPENDENTEA

Gatazken izaera eta norainokoa eta mundu-mailako segurtasuna aldatzen ari dira. Mehatxu eta eragile desberdinak Europar Batasuneko herrialdeen defentsarako eta segurtasunerako erronka berriak sortzen ari dira.

Beraz, Europar Batasuneko estatu kideek beren indarrak batu behar dituzte eta munduan zeregin militar garrantzitsua bete behar dute.

## EUROPAR BATASUNENKO IDEIA-LABORATEGIAREN KONTSEILUA

Ministroen Kontseiluak Europako Batzordeari gogorarazten dio estatu kideek modu independentean erabakitzen dutela beren kanpo- eta defentsa-politikari buruz. Beraz, Kontseiluak aldaketa hauek proposatzen ditu:

Gehikuntza 1. artikuluan: Europako armada hori armada nazionalekin batera existituko da eta ez ditu horiek ordeztxuko.

Gehikuntza 3. artikuluan: Estatu kide bakoitzak modu autonomoan erabakiko du Batasuneko armadari egingo dion ekarpena, bai indarretan bai baliabidetan (funtsak, gerra-gurdiak, hegazkinak, etab.).

Idatzi aldaketa (zuzenketa) horiek ariketa-orrian (2 minutu).

## EUROPAKO PARLAMENTUA

Orain zeuen txanda da. Europako Parlamentuko diputatu gisa, lege-proposamena alda dezakezue, Batasuneko herritarrentzat komenigarriena iruditzen zaizuenaren arabera. BAINA: Europar Batasuneko Kontseiluaren iritziak (2. karta) eta Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena kontuan hartu behar dituzue. Erabili orobat alderdi interesdunen (presio-taldeen) informazioa.

Egin urrats hauek:

1. Biratu parte-hartzaileen kartak banan-banan eta irakurri ozenki (taldeko kide bakoitzak karta bat irakurriko du ozenki, txandaka). Ertzean sinbolo bat duten kartak dira. Jarraitu karta guztiak irakurri arte (2 minutu).
2. Jarri kartak mahaian, testua gorantz begira, talde guztiak informazioa ikusi ahal izateko.
3. Eztabaidatu jatorrizko lege-proposamena taldean, artikuluz artikulua. Hasi 1. artikulutik: nor dago ados eta nor ez? Erabili alderdi interesdunen informazioa zeuen argudioetarako. Egin gauza bera artikulua guztiakin (6 minutu).
4. Idatzi lege egokitu bat, taldeko kide guztiak onartzen dutena. Artikuluaren edukia aldatu, artikulua kendu eta artikulua berriak gehitu ditzakezue. Idatzi zeuen lege berri edo egokitua ariketa-orrian (6 minutu).

## BAKERAKO ERAKUNDEEN SAREA

Libian eta Afganistanen, egoerak txarrera jo zuen esku-hartze militarren ostean. Armek ezin dute gatazkarik konpondu. Batasunak armada europar batean esku ez hartzea nahi dugu. Herritarrek ez dute armada hori nahi eta ez dute nahi funts gehiago Europako defentsara bideratzerik.

Beste galdera bat: zein hizkuntza hitz egingo litzateke armada horretan? Ingelesa? Frantsesa? Edo Batasuneko beste 24 hizkuntza ofizialeko bat?

## DEFENSA-INDUSTRIA

Dauden armada nazionalekin batera existituko litzatekeen armada europar berri baten alde daude. Batasunaren segurtasunak gailendu behar du. Batasunak premiaz garatu behar du bere defentsa-politika, erasoren bat egonez gero Ameriketako Estatu Batuen laguntzaren menpe egon beharrean. Europako Parlamentuari eskatzen diogu armada hori garatzeko aurrekontu gehigarri bat esleia dezala. Gure interes erkidearen onerako izango da.

Zeuen lege egokitua sortu duzue. Orain Europako Parlamentu osoaren laguntza lortu behar duzue. Prestatu zeuen lege berriaren aurkezpen laburra beste diputatuentzat (gelakideentzat). Erabili ariketa-orria eta jardun honela (3 minutu):

1. Hartu Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena eta irakurri ozenki.
2. Esan gelakideei zein aldaketa eskatu zituen Kontseiluak.
3. Irakurri ozenki zeuen lege berria.
4. Eman Batasuneko herritarrentzako neurri ona dela pentsarazten dizuen bizpahiru arrazoi edo argudio. Prestatu aurretiaz eta idatzi ariketa-orrian.

## EUROPAKO BATZORDEA

1. Irakurri Europako Batzordearen lege-proposamena (minutu 1).
2. Iruzkindu proposamena laburki taldearen barruan: zertan datza? Eskatu informazio gehigarria irakasleari, behar izanez gero (minutu 1).
3. Taldeko kide bakoitzak tarte bat hartuko du proposamenarekin ados dagoen pentsatzeko. Gero, denek txandak egingo dituzte taldeko beste kideei beren ikuspuntua azaltzeko.

## DATUAK ETA HERRITARREN PROTESTA, ZENBAKIAK

- Lurreko temperatura Industria Iraultzan baino 1 °C altuagoa da jada giza jardueretatik datozen berotegi-efektuko gasen isurien ondorioz.
- Batez besteko temperatura 2 °C igotzen bada, ezingo ditugu jada ondorioak (uholdeak, ekaitz bortitzak, itsasoaren mailaren igoera, etab.) kontrolatu.
- EB berotegi-efektuko gasen munduko isurien % 11ren erantzulea da. EB hirugarren igorle handiena da, Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen ondoren.
- 2018an, EBko amaierako energia-kontsumo gordinaren % 18,9 iturri berriztagarrietatik zetorren (Eurostat, 2020).

## HERRITARRAK

Gure ustez, EBk berotze globalaren aurkako neurri zorrotzak hartu beharko lituzke. Zuhurki baikorrak gara Europako proposamenari dagokionez eta espero dugu Europako Parlamentuak bere esku dagoen guztia egingo duela proposamena ez txikiagotzeko.

Klima-aldaketan esku ez hartzeak guztiontzako ondorio larriak izango ditu eta urtean 934 milioi euro kostatuko zaigu. Eta, berriro ere, herritarrek ordainduko dute, ez enpresek.

## 3. GAIA: BATASUNA ETA BEROTZE GLOBALA

### EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA

Europako Batzordeak antolatzen duen Ministroen Kontseilua benaz hartzen ari da klima-aldaketa. Hala ere, aldaketa hauek eskatzen ditu:

2. artikulua. Energiaren % 30 iturri berriztagarrietatik etortzea 2030erako. Ameriketako Estatu Batuek eta Txinak ere neurri zorrotzak ezartzen badituzte bakarrik ezarriko dira 2050. urterako neurriak.

Idatzi aldaketa (zuzenketa) horiek ariketa-orrian (2 minutu).

### EUROPAKO PARLAMENTUA

Orain zeuen txanda da. Europako Parlamentuko diputatu gisa, lege-proposamena alda dezakezue, Batasuneko herritarrentzat komenigarriena iruditzen zaizuenaren arabera. BAINA: Europar Batasuneko Kontseiluaren iritziak (2. karta) eta Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena kontuan hartu behar dituzue. Erabili orobat alderdi interesdunen (presio-taldeen) informazioa.

Egin urrats hauek:

1. Biratu parte-hartzaileen kartak banan-banan eta irakurri ozenki (taldeko kide bakoitzak karta bat irakurriko du ozenki, txandaka). Ertzean sinbolo bat duten kartak dira. Jarraitu karta guztiak irakurri arte (2 minutu).
2. Jarri kartak mahaian, testua gorantz begira, talde guztiak informazioa ikusi ahal izateko.
3. Eztabaidatu jatorrizko lege-proposamena taldean, artikuluz artikulua. Hasi 1. artikulutik: nor dago ados eta nor ez? Erabili alderdi interesdunen informazioa zeuen argudioetarako. Egin gauza bera artikulua guztiekin (6 minutu).
4. Idatzi lege egokitu bat, taldeko kide guztiek onartzen dutena. Artikuluen edukia aldatu, artikulua kendu eta artikulua berriak gehitu ditzakezue. Idatzi zeuen lege berri edo egokitua ariketa-orrian (6 minutu)

## KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Ados gaude proposamen honekin eta Europako Parlamentuari eskatzen diogu petrolioaren eta ikatzaren industriako presio-taldeen aurrean makurtu ez dadila. Frogek erakusten dute ekonomia ekologikoan inbertitzeak ere enplegu berriak sortzen dituela. Hori dela-eta, EBk plan horiekin jarraitu behar du, munduko beste herrialdeek edozer erabakitzen dutela ere.

## PETROLIOAREN ETA IKATZAREN ENPRESAK

«Energia berriztagarri» direlako sektorea oraindik ez dago prest. Beraz, ezinezkoa da jakitea 2050erako soilik energia berriztagarrien menpe egoteko gai izango garen. Horregatik eskatzen diogu Europako Parlamentuari energia berriztagarriei bakarrik ez heltzeko, EBko herritarren eta enpresen energia-hornidura babesteko asmoz.

Zeuen lege egokitua sortu duzue. Orain Europako Parlamentu osoaren laguntza lortu behar duzue. Prestatu zeuen lege berriaren aurkezpen laburra beste diputatuentzat (gelakideentzat). Erabili ariketa-orria eta jardun honela (3 minutu):

1. Hartu Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena eta irakurri ozenki.
2. Esan gelakideei zein aldaketa eskatu zituen Kontseiluak.
3. Irakurri ozenki zeuen lege berria.
4. Eman Batasuneko herritarrentzako neurri ona dela pentsarazten dizuen bizpahiru arrazoi edo argudio. Prestatu aurretiaz eta idatzi ariketa-orrian.



## EUROPAKO BATZORDEA

1. Irakurri Europako Batzordearen lege-proposamena (minutu 1).
2. Iruzkindu proposamena laburki taldearen barruan: zertan datza? Eskatu informazio gehigarria irakasleari, behar izanez gero (minutu 1).
3. Taldeko kide bakoitzak tarte bat hartuko du proposamenarekin ados dagoen pentsatzeko. Gero, denek txandak egingo dituzte taldeko beste kideei beren ikuspuntua azaltzeko.

## DATUAK ETA ZENBAKIAK

- Europar Batasuneko azken hauteskundeetan, 2019an, guztizko partaidetza % 50,7 izan zen.
- Belgikak, Greziak eta Luxenburgok bakarrik daukate nahitaezko bozketa. Hala ere, Grezian ez da aplikatzen.
- Herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan gehiago parte hartzeko beharra berariaz aipatu zen Europako herritar-konsultari buruzko 2018ko eta 2019ko txosten nazionalen erdietan.

## HERRITARRAK

Herritarrek ez lukete bozkatzera behartuta egon behar. Helduek ez bozkatzera aukeratzeko eskubidea daukate hauteskundeak garrantzitsuak iruditzen ez bazaizkie edo ezein hautagai politikorekin nahiz sistemarekin ados ez badaude.

Era berean, hobe da EBn benetan interesatuta daudenen bakarrik bozkatzera, horiek izango direlako hobekien informatuta daudenak. Interesatuta ez dauden herritarrek behartzen badira, baliteke ausaz bozkatzera, legezko betekizunak betetzeko baino ez, edo hautagai txoriburu eta txantxazaleak bozkatzera.

## 4. GAIA: EUROPAKO DEMOKRAZIA

## GOGOETA-TALDE INDEPENDENTEA

Herritar arrunt gehienak ez dira adituak. Zergatik emango liekete erakundeek hain zeregin garrantzitsua? Herritar Europarren Biltzar baten orde, gure gogoeta-taldeak eremuko adituak, industriatik, mundu akademikotik eta sozietate zibileko erakundeetatik datozenak, hautatzea gomendatzen du.

## EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUA

Europar Batasuneko Kontseilua herritarrek EBko gaietan gehiago parte hartzearen alde dago. Hala ere, nabarmetzen du estatu kideek erabakitzen dutela botoa nahitaezkoa den ala ez. Aldaketa hauek eskatzen ditu:

1. ARTIKULUA. Europako Batzordeak estatu kideak nahitaezko bozketa sartzera animatu besterik ezin du egin. Estatu kideek hartzen dute azken erabakia.

GEHIKUNTZA 2. ARTIKULUAN: «Biltzar horrek aholkuak eman baino ezin du egin eta ez dauka bestelako botererik».

Idatzi aldaketa (zuzenketa) horiek ariketa-orrian (2 minutu).

## EUROPAKO PARLAMENTUA

Orain zeuen txanda da. Europako Parlamentuko diputatu gisa, lege-proposamena alda dezakezue, Batasuneko herritarrentzat komenigarriena iruditzen zaizuenaren arabera. BAINA: Europar Batasuneko Kontseiluaren iritziak (2. karta) eta Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena kontuan hartu behar dituzue. Erabili orobat alderdi interesdunen (presio-taldeen) informazioa.

Egin urrats hauek:

1. Biratu parte-hartzaileen kartak banan-banan eta irakurri ozenki (taldeko kide bakoitzak karta bat irakurriko du ozenki, txandaka). Ertzean sinbolo bat duten kartak dira. Jarraitu karta guztiak irakurri arte (2 minutu).
2. Jarri kartak mahaian, testua gorantz begira, talde guztiak informazioa ikusi ahal izateko.
3. Eztabaidatu jatorrizko lege-proposamena taldean, artikuluz artikulua. Hasi 1. artikulutik: nor dago ados eta nor ez? Erabili alderdi interesdunen informazioa zeuen argudioetarako. Egin gauza bera artikulua guztiakin (6 minutu).
4. Idatzi lege egokitu bat, taldeko kide guztiak onartzen dutena. Artikuluen edukia aldatu, artikulua kendu eta artikulua berriak gehitu ditzakezue. Idatzi zeuen lege berri edo egokitua ariketa-orrian (6 minutu).

## EUROPAKO POLITIKAREN ELKARTEA

Europarrek eragin handiagoa eduki nahi dute EBren funtzionamenduan. Proposamen honen bigarren zatia gaude oso, bereziki herritarren ausazko hautespenari dagokionez. Ez dauka zentzurik biltzar horretan leku bat irabazteko promesik egitea. Era berean, horrek bermatzen du «herritar arruntek» Europako politikak prestatzeko konpromisoa hartuko dutela. Egitate hori garrantzitsua da egungo partaidetza-tresna gehienak nagusiki interes antolatatu edo profesioletarako edo eremu jakin bateko adituentzat direlako.

## DEMOKRAZIARAKO IDEIA-LABORATEGIA

Europako hauteskundeetarako nahitaezko botoa sartzearan alde gaude. Horrela, hauteskundearen emaitzek herritar guztien iritzia islatuko dute, baita gazteena ere. Egitate hori garrantzitsua da ikerketa batzuek frogatu dutelako belaunaldi zaharrenak direla nagusiki botoa ematen dutenak; horrek hauteskundearen emaitzak desitxura ditzake.

Gainera, sarritan, herritarrek ez dute hain ondo ezagutzen Europako jarduketa-maila. Nahitaezko botoaren bidez egoera aldatuko litzateke, herritarrek bozkatu aurretik informatuta daudela ziurtatu beharko luketelako.

Zeuen lege egokitua sortu duzue. Orain Europako Parlamentu osoaren laguntza lortu behar duzue. Prestatu zeuen lege berriaren aurkezpen laburra beste diputatuentzat (gelakideentzat). Erabili ariketa-orria eta jardun honela (3 minutu):

1. Hartu Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena eta irakurri ozenki.
2. Esan gelakideei zein aldaketa eskatu zituen Kontseiluak.
3. Irakurri ozenki zeuen lege berria.
4. Eman Batasuneko herritarrentzako neurri ona dela pentsarazten dizuen bizpahiru arrazoi edo argudio. Prestatu aurretiaz eta idatzi ariketa-orrian.

## EUROPAKO BATZORDEA

1. Irakurri Europako Batzordearen lege-proposamena (minutu 1).
2. Eztabaidatu jatorrizko lege-proposamena taldean: zertan datza? Eskatu informazio gehigarria irakasleari, behar izanez gero (minutu 1).
3. Taldeko kide bakoitzak tarte bat hartuko du proposamenarekin ados dagoen pentsatzeko. Gero, denek txandak egingo dituzte taldeko beste kideei beren ikuspuntua azaltzeko.

## DATUAK ETA ZENBAKIAK

- Mundu osoko 70,8 milioi pertsonak beren etxeetatik alde egin behar izan dute (ACNUR, 2019): inoiz ez bezalako kopurua.
- Mundu osoko errefuxiatuen % 14ri Europan egin zaie harrera (ACNUR, 2019).
- Hauek dira alde egiteko arrazoietako batzuk: gerra (adibidez, Sirian), krisia (adibidez, Afganistanen eta Libian) eta terrorismoa (adibidez, Nigerian eta Eritrean).
- 2014tik, 20.000 pertsonak baino gehiagok galdu dute bizitza Mediterraneo itsasoa zeharkatzen saiatzean (Missing Migrants Project, 2019).

## HERRITARREN PROTESTA

Gure herrialdeek ezin diete asilo-eskatzailerik guztiei harrera egin. Ez daukagu ez lekurik ez dirurik. Gure bizimoduari eusteko modu bakarra EBtik kanpoko inor ez onartzea da. Eskatzen dugu estatu kide bakoitzak modu autonomoan erabaki ahal izatea nola egin aurre asilo-eskatzailerik eta zenbat onartu. Batasunak ezin die ezer ezarri estatu kideei.

## 5. GAIA: ERREFUXIATUAK EUROPAN

## IDEIA-LABORATEGI INDEPENDENTEA

Europar Batasuneko hegoaldeko herrialdeek migratzaile-fluxu handiena daukate egungo migrazio-bideetatik hurbilago daudelako. Horrek esan nahi du asilo-eskatzailerik gehienak hartu behar dituztela eta, beraz, gastu ekonomiko handiagoa egin behar dutela. EBko gainerako estatu kideek laguntza eman behar diete. Horregatik babesten dugu Europako Batzordearen legegintza-proposamena.

## EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA

Ministroen Kontseiluaren iritziz, estatu kideek modu autonomoan erabaki behar dute gai horri buruz. Kontseiluak aldaketa hauek nahi ditu:

2. artikulua: Estatu kideek birkokatzeke planean parte hartzeari buruzko azken erabakia hartzeko ahalmena gordeko dute.
3. artikulua: Estatu kideek modu autonomoan erabakiko dute zenbat errefuxiatu hartuko dituzten.
4. artikulua: Herrialde bakoitzak hartuko du bere ekarpenari buruzko azken erabakia.

Idatzi aldaketa (zuzenketa) horiek ariketa-orrrian (2 minutu).

## EUROPAKO PARLAMENTUA

Orain zeuen txanda da. Europako Parlamentuko diputatu gisa, lege-proposamena alda dezakezue, Batasuneko herritarrentzat komenigarriena iruditzen zaizuenaren arabera. BAINA: Europar Batasuneko Kontseiluaren iritzia (2. karta) eta Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena kontuan hartu behar dituzue. Erabili orobat alderdi interesdunen (presio-taldeen) informazioa.

Egin urrats hauek:

1. Biratu parte-hartzaileen kartak banan-banan eta irakurri ozenki (taldeko kide bakoitzak karta bat irakurriko du ozenki, txandaka). Ertzean sinbolo bat duten kartak dira. Jarraitu karta guztiak irakurri arte (2 minutu).
2. Jarri kartak mahaian, testua gorantz begira, talde guztiak informazioa ikusi ahal izateko.
3. Eztabaidatu jatorrizko lege-proposamena taldean, artikuluz artikulua. Hasi 1. artikulutik: nor dago ados eta nor ez? Erabili alderdi interesdunen informazioa zeuen argudioetarako. Egin gauza bera artikulua guztiekin (6 minutu).
4. Idatzi lege egokitu bat, taldeko kide guztiek onartzen dutena. Artikuluen edukia aldatu, artikulua kendu eta artikulua berriak gehitu ditzakezue. Idatzi zeuen lege berri edo egokitua ariketa-orrrian (6 minutu).

## AMNISTIA INTERNAZIONALA

EBk benetan pentsatzen badu giza eskubideak axola direla, jardun eta bizitzak salbatu beharko ditu. Europako Parlamentuari proposamen hori babesteko eskatzen diogu, ikuspegi europarra guztiz beharrezkoa delako. Era berean, EB hertsatzen dugu EBtik kanpoko asilo-eskatzailerentzako legeko aukerak xeda ditzan. Gaur egun, pertsonak Europako lurraldera heldutakoan bakarrik aurkeztu dezakete eskaera; hori dela-eta, legez kontra sartu eta behar ez diren arriskuak hartu behar dituzte.

## INTEGRAZIOAREN ALDEKO ENPLEGATZAILEAK

Hirugarren herrialdeetako nazionalak EBko lan-merkatuan arrakastaz integratzea gure gizarteetarako aukera da. Modu eraginkorrean integratzen direnean, lan-merkatuari hobeto funtzionatzen eta jarduten lagundu ahal diote eta zerga-jasangarritasuna babes dezakete. Europako biztanleria zahartzen ari dela kontuan izanik, hori bereziki beharrezkoa da pentsioek eskuragarriak izaten jarraitzen dutela bermatzeko.

Zeuen lege egokitua sortu duzue. Orain Europako Parlamentu osoaren laguntza lortu behar duzue. Prestatu zeuen lege berriaren aurkezpen laburra beste diputatuentzat (gelakideentzat). Erabili ariketa-orrria eta jardun honela (3 minutu):

1. Hartu Europako Batzordearen jatorrizko lege-proposamena eta irakurri ozenki.
2. Esan gelakideei zein aldaketa eskatu zituen Kontseiluak.
3. Irakurri ozenki zeuen lege berria.
4. Eman Batasuneko herritarrentzako neurri ona dela pentsarazten dizuen bizpahiru arrazoi edo argudio. Prestatu aurretiaz eta idatzi ariketa-orrrian.